



KOMUNIKAZIOA

Lurraldeen defentsarako komunikazio
antirrazista eta antipatriarkal
baterako gida



AURKIBIDEA

LURRALDEEN DEFENTSARAKO KOMUNIKAZIO ANTIRRAZISTA ETA ANTIPATRIARKAL BATERAKO GIDA

KOORDINAZIOA:

Lumaltik Herriak

EDUKIAK ETA IDAZKETA:

Marina Gallardo Izquierdo

ILUSTRAZIOA:

Beatriz Aparicio

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Marina Gallardo Izquierdo

ITZULPENA:

Iñigo Gallastegi

FINANTZIAZIOA:

Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia

2023ko iraila

Baimenduta dago lan hau kopian eta banatzea edozein medio eta formatutan, baldin eta egilea aitortzen eta ondo aipatzen bada.

Ezin da lan hau merkataritza xedeetarako erabili.

© Lumaltik Herriak, 2023

www.defensoras.org

01.

Aurkezpena

02.

Zergatik da beharrezkoa komunikazio antipatriarkala eta antirrazista

03.

Zer da komunikazio kontrahegemonikoa

04.

Gida egiteko prozesua

05.

Lurraldeen defentsarako komunikazio antirrazista eta antipatriarkala egiteko ekarpenak

06.

Parte-hartzaileak

AURKEZPENA

Giza-esperientziaren eta gizarte-antolakuntzaren funtsezko prozesuetako bat izateaz gain, komunikazioa eraldaketa tresna indartsua da. Izan ere, imaginario kolektiboa eratzeko botere handia du, gizarte kontzientzia kritikoa sustatzeko ahalmena, eta gizarte eta politika eraldaketako ekintza zehatzak egiteko erabakietan eragiten du. Hortaz, hausnartu behar dugu zer nolako komunikazioa egiten dugun eta nola eta zergatik egiten dugun.

Gida honetan, lurraldeen defentsan lagunduko duen komunikazio antirrazista eta antipatriarkala erabiltzeko ekarpenak eta praktika onak jasotzen ditugu.

Gida, bada, erakundeei, kolektiboei, gizarte mugimenduei eta, oro har, komunikazioaren botere politikoa aintzat hartzen eta hura modu kontzientean praktikatu nahi duen edonori zuzenduta dago. Haren bitartez, borroka eta erresistentzia prozesu antirrazistak, antipatriarkalak, dekolonialak eta lurraldeen defentsaren aldekoak lagundu nahi ditugu.

ZERGATIK DA BEHARREZKOA KOMUNIKAZIOA ANTIPATRIARKALA ETA ANTIRRAZISTA

Imajinario patriarkalek eta arrazistek askotariko zapalkuntzen sistema legitimatzen dute. Halaber, eguneroko bizitzaren alderdi guztiak iragazten dituzte eta kulturetan oso errotuta daude. Nagusi den komunikazioak, bada, imajinario horiek transmititzen ditu eta indarkeriaren naturalizazioaren eragile pedagogiko gisa jarduten du.

Beraz, komunikazio hegemonikoak, hedabide korporatiboan bitartez, araua osatzen duten eta zapalkuntzen sistemaren parte diren gizarte-aginduak transmititzen eta erreproduzitzen ditu. Horrela, indarkeria eta pertsonen eta lurraldeen eskubideen urraketa naturalizatzen dituzte, eta subjektu politikoaren eragiletasuna ezkutatzen dute. Izan ere, komunikazio hura indarkeria sinbolikoko mekanismo bat

da berez, eta familia, komunitate eta gizarte eremuetan menpekotasun-harremanak eta indarkeria sustatzen ditu.

Hortaz, premia da diskurtsoak aldatzea, beste narratiba batzuk sortzea eta imajinario kolektiboak eratzeko mekanismoen jabe egitea; askotariko zapalkuntzen sistema mantentzen duten ideiak deuseztatzeak, eta gure aniztasunaren eta zeharkatzen gaituzten errealitateen inguruan ikuspegi zabala izateko. Baina horretarako komunikazio eskubidea segurtasun, justizia, askatasun eta egonkortasun baldintzetan bermatzeko borrokatu behar dugu.

Kazetarien eta gizarte komunikatzaileen aurkako indarkeria etengabea da Mexikon eta Guatemalan. Hondurasen eta El Salvadorren, komunikazioa salerosgai gisa ikusten da, eta ez giza eskubide bezala.



Komunikazio komunitarioa egiten duten lagunen aintzatespen eta babes eza da komunitateek eta komunikatzaile komunitarioek aurkitzen duten oztopo nagusietako bat. Hori dela eta, komunikazio propio eta independente baten aldeko borroka giza eskubideen eta lurraldearen defentsaren gakoetako bat da.

Izan ere, irratik komunitarioek ahotsa altxatzeko eta diskriminazioari aurre egiteko aukera ematen dute. Hala, ulertu behar dugu sistema zer den, nola jarduten duen, nola pairatzen duten herriek eta zer nolako proposamenak dauden.

Segurtasun politiko, juridiko eta sozialik gabeko testuinguru batean, eta Estatuak irratik komunitario eta alternatiboan aurkakoak direla eta oztopoak jartzen dizkietela kontuan hartuta, funtsezkoa

da komunikazioa itxaropenetik eta alaitasunaren defentsatik sustatzea. Komunikazio hura genero-justiziarekin eta ingurumen-justiziarekin konprometitu behar da, eta antirrazista, antikapitalista eta antipatriarkala izan behar da. Halaber, komunikazio hura prozesu eta bizi-proiektu gisa pentsatu behar dugu; izan ere, ez da salaketara soilik bideratzen; herritik eta herriarentzat egindako komunikazioa da; kontuan hartzen du ez gaudela bakarrik, beste lagun eta hedabide asko daudela borroka berean; badaki pertsona guztiek egin dezaketela komunikazioa; komunikazioa guztiontzat dela, subjektu indibidual eta kolektiboentzat, herrirentzat eta/edo beren autonomia, kultura eta nortasuna defendatzen duten taldeentzat. Azken finean, komunikazio anitza, askea eta kritikoa da.

ZER DA KOMUNIKAZIO KONTRA- HEGEMONIKOA

Komunikazio komunitarioak eta komunikazio alternatiboak, maiz, printzipio berdinen arabera lan egiten dute, eta helburuak eta tresnak partekatu ohi dituzte. Hala ere, komunitario hitzak biltzen dituen mundu-ikuskerak eta bizimoduak Abya Yalako lurraldeko herrienak izan ohi dira. Euskal Herrian eta Espainiako Estatuan, bertako ikuspegiak arabera bizi eta borrokatzen dugu, eta agian kolektibitateaz eta komunikazioa alternatiboaz hitz egingo genuke. Hortaz, testuan proposamen biak bereiziko ditugu.

Komunikazio komunitarioa

Komunikazio komunitarioa erresistentzia da. Hain zuzen, boterea esku gutxitan biltzen duten eta herriak zapaltzen dituzten komunikazio hegemonikoei aurre egiten dion proposamena da, kultura, arte eta sormen adierazpen oro onartzen dituen.

Kazetaritza komunitarioak, beraz, komunitateekin konprometitzea

eskatzen du. Irrati, telebista eta prentsa eremuak herrien, emakumeen eta gazteen eskura jarri nahi ditu, haien hitza zabaltzeko, haien errealitateak ulertzeko eta haien bizi esperientzietatik sortzen diren interpretazioak ezagutzeko.

Horrek, maiz, haize kontra ibiltzea eskatzen du; herritarrengan eta lurraldeetan eragiten duten arazoan



kausa estrukturalak erakutsi nahi baititu; eta, hala, agertoki publikoan eta hedabide korporatiboetan ageri ez diren informazio-iturri berrietara jotzea eskatzen du.

Zentzu horretan, narratiba horien helburua da “tokiko eremutik eragitea, horretan gertatzen diren gaiak posizionatu ahal izateko”. Ideia hori, bada, izugarri disruptiboa da; izan ere, hedabide korporatiboak izaten dira agenda erabakitzen dutenak, eta agenda horren bihotzean hiria eta botere-zentroek erabakitako agenda politikoa aurkitzen da. Errealitatea kontatzeko beste modu hau, aldiz, tokiko eremutik abiatzen da nazio mailan eragiteko.

Beraz, irrati komunitarioa sektore zaurgarrien hitza zabaltzeko tresna estrategikoa eta politikoa da. Irrati

edukien bitartez eragina izan nahi du, eta, horretako, salaketa lana egiten du eta giza eskubideen eta lurraldearen defentsa laguntzen du.

Irrati komunitarioak komunitatetik sortutako subjektu politikoak dira, bai lurralde komunalean sortzen direlako edo bai horiek sortzen dituzten lagunak arlo komunitarioan errotzen direlako, bizi eta borroka printzipio gisa.

Komunitateek berek ekoizten eta egiten dute irrati komunitarioa, eta, horren bitartez, borroka eta erresistentziak, kultura eta komunitate landatar eta indigenen egoera partekatzen dituzte. Irrati komunitarioak, hortaz, komunikazioen monopolioa hausten du eta espektroradioelektrikoa demokratizatzen du.

Komunikazio alternatiboa

Komunikazio alternatiboaren esparruan, komunikazioa gizarte eraldaketarako tresna politikoa da. Alde batetik, nagusi diren eta hedabide hegemonikoek transmititzen dituzten jakintza eta imajinarioak birpentsatzea proposatzen du; izan ere, zapalkuntzak eta indarkeriak justifikatzen eta betikotzen dituzten ideiak horietatik sortzen dira. Bestetik, komunikazio-praktiken inguruan dagoen ikuspegia zabaltzen du, eta sortzeko eta adierazteko beste modu batzuk aintzat hartzen ditu, bestelako kontranarratibak hedatzeko.

Komunikazio hau:

- Ez du botereak finantzatzen, modu autogestionatuan egiten da, maiz militantziaren bitartez.
- Tokian sortzen da.
- Bere lurraldeko borrokak eta mobilizazio-prozesuak babesten eta laguntzen ditu, eta beste lurralde batzuetan ematen direnak ere ezagutzera ematen ditu.
- Jakintzak eta edukiak kolektiboki sortzeko aukera ematen du.
- Zapalkuntza-sistemak deseraikitze eta bizitza aske eta seguru baterako alternatibak sortzeko borrokaren aldeko orientazio argia du.

Bestalde, **komunikazio feministak eta antirrazistak** patriarkatua eta arrazakeria ezabatu nahi ditu, errealitatearen ikuspegi kritiko bat sortzen lagundu nahi du eta isilarazitako gaiak eta ahotsak berreskuratu eta landu nahi ditu. Horretarako, praktika kolektibo eta demokratikotik sortzen da.



GIDA EGITEKO PROZESUA

Orrialde hauetako edukiak modu kolektiboan sortu dira, hainbat esperientzia eta ikerketa-prozesutan oinarrituta. Gidak ez du egia absolutu eta unibertsal bat izan nahi; aitzitik, ezagutza kokatutik sortzen da, eta etengabe berrikusten eta mugitzen egotea nahi dugu.

Gida hau, bada, 2021etik 2023ra bitartean garatutako ikerketa-prozesu kolektibo baten emaitza da. Prozesua gizarte eraldaketarako komunikazio-praktikak ezagutzera eta aztertzerat bideratu zen; hain zuzen ere, komunikazio komunitarioko eta alternatiboko hedabideetako kazetariak eta gizarte mugimenduetako, kolektiboetako eta erakunde herritarretako kideek egiten dituztenak.

Gida egiteko, hiru ikerketa burutu dira, zenbait lekutan eta ikuspegi desberdinekin.

Ikerketa bakoitzak, bada, bere prozesua izan du, baina hiruretan metodologia bera jarraitu da. Hau da, komunikazio antipatriarkala, antirrazista, dekoloniala eta lurraldearen defentsaren aldekoa erabiltzen duten kolektibo, hedabide, mugimendu eta erakundeetako parte diren lagunak elkarriketatu dituzte.

Hala, elkarriketetatik hartutako ideiak eta adostasunak identifikatu direnean, ikerketak idatzi dira eta hiru talde fokalen bitartez aurkeztu dira (talde bat ikerketa bakoitzeko). Aurkezpen saioetan ikerketan parte hartu duten lagunak izan dira. Hala, topagune horien bitartez, ikerketen ondorioei buruzko hausnarketa egin dute eta komunikazio gida hau irudikatzen hasi dira.

Lan horiek web orrialde honetan daude eskuragarri:
www.defensoras.org

— **“Buenas prácticas de periodismo comunitario: Guía de acción”** ikerketa Andrea Carrillo Samayoak eta Silvia Trujillok egin dute, Guatemalan eta Chiapasen, La Cuerda elkarte feministaren izenean.

— **“Experiencias comunicativas alternativas para una defensa feminista del territorio”** El Salvadorren eta Hondurasen garatu zuten Marixela Ramosek eta Marta Rivasek, El Salvadorko Cabañas saileko ikertzaileek.

— **“Aprendiendo a hacer comunicación antirracista y antipatriarcal”** ikerketa Marina Gallardo Izquierdok egin du, eta Euskal Autonomia Erkidegoaren testuinguruan kokatzen da baina Espainiako Estatuko beste esperientzia batzuk ere hartzen ditu.

Ikerketan, kazetari eta komunikatzaile komunitarioak elkarriketatu dituzte, lurraldeko komunikazio komunitarioko hedabideetakoak zein independenteak. Elkarriketa horien bitartez, bada, ikerketak komunikazio komunitarioa egiteko gakoak zehazten ditu: zer da, nola lantzen da eta zer nolako erronkak ditu.

Irrati komunitarioen komunikazio-proiektuetako zenbait adiskide elkarriketatu dituzte, komunikazio-praktika eraldatzaileen inguruko proposamen bat orientatzeko.

Hedabide alternatiboen informazio-zabalkundeko praktikak hartzen dituen komunikazio kontzeptu batetik, eta hainbat eragilek eta erakundek garatutako komunikazio esperientzietatik, adiskide komunikatzaile, kazetari eta aktibistekin eztabaidatu dugu gizarte eraldaketara bideratutako komunikazio feminista eta antirrazista batek bete behar dituen zenbait puntu zehazteko.


LURRALDEEN DEFENTSARAKO KOMUNIKAZIO ANTIRRAZISTA ETA ANTIPATRIARKALA EGITEKO EKARPENAK



01

Komunikazio kontzeptua birdefinitzea

Komunikazioa besteekin eta inguruarekin harremana izateko prozesu bezala ulertzen dugu. Prozesu horrek ideiak trukatzeko aukera ematen digu, eta ideiek aurreko esperientzia komun arabera hartzen dute zentzua edo esanahia. Horrela, imajinarioak eratzen dira eta errealitateari buruz dugun ezagutza sortzen da.



Horrek, beraz, **komunikazioaren balio politikoa eta estrategikoa aintzat har dezagun** errazten du, gizarte eraldaketa sustatzen duten irudikapenak eta harremanak abian jartzeari dagokionez.

Komunikazio eraldatzaileak:

- Nagusi diren jakintzak eta imajinarioak birpentsatzea eskatzen du.
- Komunikazio-praktikei buruzko ikuspegia zabaltzen du. Askotariko hizkerak eta adierazpenak sustatzen ditu.
- Narratibak itxaropenetik sortuz egiten da komunikazio eraldatzailea. Izan ere, beldurak geldiarazten gaitu, aldaketak posible direla sinetsi behar dugu.
- Nagusi den komunikazioak nahita ezkutatuak errealitateak bistaratzen ditu.
- Subjektuen hitza, jakintzak, memoria eta ametsak zabaltzen ditu.
- Sentipenak eta bizipenak partekatzea eta ondoeza politizatzea ahalbidetzen du, sareak, kolektibitateak eta elkartasunak ehuntzeko.
- Maitasunen, zaintzen eta nahien logikak hartzen ditu.
- Politikan eragiteko biltzen eta mugitzen gaitu. Erresistentzia-estrategiak eta borroka kolektiboak antolatzeak aukera ematen du.
- Lurraldeekin eta egoera jakinekin lortzen da.

Erakundeen barruranzko praktikak

Dekonstrukzioa gudan hasten da, baina ezin dugu guk bakarrik egin:

- Komunikazioak beti bilatzen du gizarte eraldaketa. Argi izan behar dugu zer nolako eraldaketa nahi dugun.
- Horretarako, derrigorrez, hausnarketa pertsonala eta kolektiboa egin behar dugu taldeen baitan.

Ez dugu gure burua guk bakarrik deseraikitzen:

- Lagundu nahi ditugun mugimenduekin harremana izan behar dugu.
- Gure dekonstrukzio-prozesua ahalbidetzen duen hori onartu eta izendatu behar dugu: beti aipatu eta tarte eman (tarte sinbolikoa bada ere) komunikatzeko erabiltzen ditugun ezagutzak eman dizkiguten pertsona horiei.

Hedabideen eginkizunean eta lagundu nahi ditugun borroka-prozesu komunitarioetan ikuspegi antipatriarkala, antikapitalista eta antirrazista txertatzea zeharkako ardatz gisa:

- Taldeen barruan gazteen eta emakumeen aldeko apustua egitea.
- Taldeak komunitateko kideekin osatzea.

Parte hartzeko mekanismo inklusiboak:

- Eremu eragileetan eta zuzendaritza taldean parte hartzen duten pertsona orok lana hobetzeko proposamenak egiteko moduan ikustea beren burua.
- Lantaldeak astero batzea.
- Batzar orokorrak.
- Emakumeen batzarrak.

Kanporanzko praktikak: komunitatea-ingurua-komunitatea harremana

Kazetaritza komunitarioa da:

- Herriekiko, sektore ahulekiko eta estigmatizatuekiko konpromisoan oinarrituta informatzea. Agenda komunitateen, herrien eta lurraldean bizi diren lagunen premien arabera definitzen da.
- Herrian oinarritzen diren begiradak gainditzea eta komunitateen, herrien, eta hiriez kanpo bizi diren lagunen ahotsak, begiradak eta esperientziak agendan kokatzea. Tokiko eremutik hasi nazio-maila azaltzeko.
- Ez bakarrik gertakariak ezagutzera ematea, baizik eta herritarrengan eta lurraldeetan eragiten duten egiturazko kausak aztertzea eta ezagutzera ematea, hau da, orain dauden tokian kokatu dituzten prozesu historikoak eta gaur egungo egoeran erantzukizuna duten eragileak.
- Beti iturriak eta hartzaileak errespetatzen dituen jarrera izatea. Iturriekiko errespetua integrala da eta prozesu osoa zeharkatzen du. Esate baterako, pertsonari galdetzea eta bere baimena izatea argazkia ateratzeko edo aipatua izateko; eta bere lekukotza errespetuz erabiltzea. Gauza bera hartzaileei dagokienez, errespetuak eskatzen du historia egitasun eta zehaztasun osoz kontatzea.
- Askotariko iturriak aztertzea, jarraibide, eragile eta protagonismo berriak sartuz.
- Proposamen eta lorpen komunitario eta kolektiboak nabarmentzea beti, biktimizazioa ekiditea, eta subjektu politikoen, herritartasun aktiboaren eta beren eskubideak defendatzen dituzten pertsonen ideia indartzea.
- Borroka bizi duina izateko giza eskubide gisa, eta parte-hartzea eta batasuna hori lortzeko bide gisa irudikatzen dituzten narratibak egitea.
- Itxaropenaren narratibatik informatzea, beste emakume, herri, komunitate eta lurralde batzuek beste leku batzuetako borrokak, erresistentziak eta proposamenak ezagut ditzaten.

Helburuak zehaztea:

Helburuak argi izatea, gure buruari galdetzea zertarako eta norentzat komunikatzen dugun.

→ Eremuak pixkanaka konkistatzea. Gure eremu eta diskurtsoetatik kanpo dauden lagunengana heltzea.

Bidelaguntza artikulatua: ondasun naturalak eta antzinakotasuna defendatzeko bidea

Informatzeaz eta komunikatzeaz gain, hedabide komunitarioek komunitateak babesteko eginkizun garrantzitsua dute, komunitate horiek gobernuko erakundeen aurrean salaketa aurkeztu edo beren arazoak konpontzeko eskatzen dutenean.

Irrati komunitarioetatik luraren defentsan laguntzeko praktikak:

- Irratiko kideak estraktibismoaren jarduerari eta ondorioei buruz trebatzea.
- Proiektu estraktibistak dituzten lurraldeetako biztanleen lekukotzak eta salaketak audio bidez sistematizatzea.
- Informatzeko eta trebatzeko ekoizpenak egitea.
- Komunitateei mikrofono irekia eskaintzen dieten zuzeneko saioak.

Irrati komunitarioak bizitza-eskola gisa:

Irrati komunitarioen eremuan, hainbat prestakuntza-prozesu jartzen dira abian:

- Irrati komunitarioko kideei eta laguntzaile eta ikasle praktikan-teei zuzendutako oinarritzko prestakuntza-prozesua, honako hauei buruzkoa: irratia jatorria, historia eta apustu politikoa eta zertan da hedabide komertzial baten desberdina.
- Prestakuntza herritarra: prestakuntza politikorako eremu bat, lokuzioari, edizioari eta irratietan egiten den lanari buruzko gaietan.
- Hedabidearen barruan lan egiten duten lagunak genero-berdintasun, giza eskubide eta ingurumen gaietan prestatzea, besteak beste.
- Bozera-maila komunitarioko prestakuntza, komunitateko emakume eta gizonei zuzendua, haien gaitasunak eta irratian egiten duten kazetaritza lana indartzeko modu gisa.

04

Agenda, ikuspegiak eta edukiak

Edukiak:

- Gaurkotasuneko edukien eta denboraz eta arduraz landutako edukien arteko oreka mantentzea.
- Maiz, ez dira jendeak eskatutako edukiak lantzen, horrexegatik landu behar ditugu.
- Edukietako asko mugimenduen, erakundeen eta komunitateen eskaerei eta premiei erantzuten diete.
- Ikuspegi antipatriarkala eta antirrazista zeharka txertatzen da edukietan.
- Parte-hartze prozesuetatik sortzen diren edukiak lantzea.

Komunikazio antirrazista:

- Ez murriztea pertsona beltzen agerikotasuna, horiek biktima edo borrero gisa aurkeztuz.
- Pertsona arrazializatuak sektore guztietan daude, ez nabarmendu bakarrik pairatzen dituzten zapalkuntzak.
- Ez erabiltzea gizatasuna kentzen duten narratibak. Ez dezagun normalizatu pertsona beltzak arrisku edo oinaze egoeretan erakusten dituzten irudiak ikustea.
- Ez "exotizatzea". Pertsona arrazializatuak egunerokoan daude, komunitateko kideak dira.
- Ez errepikatzea migrazioari buruzko kontakizun sentsazionalistak.
- Ez sustatzea estereotipoak edo aurreiritziak.

Komunitateek beren ahotsa dute:

- Agenda eta ikuspegiak zehaztea, lurraldeko komunitateen eta pertsonen premiei erantzuteko. Ez da kazetaritza “neutrala”, baizik eta borrokekin eta eskubideak urratuta dituzten pertsonen askapenarekin konprometitua.
- Pertsona horiei “ahotsa emateko” ideia kolonizatuekin haustea; kazetaritza komunitarioa ahots eta narratiba propioak dituzten pertsonekin egiten da.
- Lurraldeetako kultura-praktikak ezagutzea, “lurraldea izatea”. Bestela, benetan entzuten saiatzea, eta komunitateko jarraibideak, praktikak, erritualak, erabakitze prozesuak eta abar ikasteko ahalegin zintzoak egitea.
- Premia zehatzak dituzten publiko jakinei zuzentzea.
- Errespetuzko eta enpatiazko harremanak eta kazetaritza-diskurtsoak egitea, estereotipo birbiktimizatzaileak, arrazistariak, kolonialistariak, sexistarik edo heteronormatiborik gabe.
- Espektakularizazioa, gehiegikeriak edo morboa saihestea; arreta albistearen gai nagusitik desbideratzen duten elementuak ez eraikitzea gertakarien inguruan.
- Egoerak eskatzen duenean, egiturazko desparekotasuna eta indarkeria nabarmentzea, hartzaileek Estatuaren edo beste erantzule batzuen omisioak identifika ditzaten.

Mugitzea, hurbiltzea, laguntza-sareekin lan egitea:

- Hedabide komunitarioek eragin eta mobilizazio ekintzen berri ematen laguntzen dute.
- Nazioarteko elkartasuna elementu garrantzitsua hedabide komunitario eta alternatiboentzat. Irratiko materialak ekoizten eta partekatzen dituzte beste herrialde batzuetan gertatzen ari dena ezagutzera emateko. Horrek zerikusia du irrati komunitarioetatik ikusten den borroka integralarekin.
- Komunitateetako gazteen etengabeko parte-hartzea duen antolakuntza ahalegina egitea (komunitate-korrenpentsalen sareak). Horrek komunikazioa deszentralizatzea eta komunitateetako gazteen bozeramailetza gaitasunak indartzea ahalbidetzen du, genero ikuspegiarekin.
- Komunitateetako adiskideekin laguntza sareak ezartzea, tokiko ekintzen argazkiak eta audioak lortzeko. Horrek albisteak egiteko lana errazten du.

05

Moduak eta formatuak

Komunikazio-erak askotarikoak dira, eta erabiltzeko moduko hizkuntza eta tresna ugari daude:

- Komunikazio-prozesua eraldatzailea izan daiteke berez.
- Komunikatzean erabiltzen dugun kapazitismoa berrikustea.
- Komunikazioa parte hartzeko prozesuetatik sor dadin sustatzea, zubiak sortzen ari garen pertsonak tartean sartzea.
- Hizkera zaintzea. Hizkuntza inklusiboa erabiltzea. Halaber, mundu guztiak ulertzen ez dituen hitz akademizistak erabiltzea oztopo bat izan daiteke.

Formatuak gainditzea:

- Komunikazioa adierazpide desberdinetara eramatea.
- Eduki bakanak sortzeaz harago joatea. Komunikazio proiektuetan pentsatzea.
- Lanaren sozializazioa online kanaletara ez mugatzea.
- Esparru digitala gainditzea, jardunaldien, topaketen eta jaialdien bitartez.
- Sare sozialen erabilerak komunikatzeko duen konplexutasuna kontuan hartzea.

Alde batetik, ahotsak biderkatu dira eta errazagoa da publiko jakinetara heltzea, eta, bestetik, aberatsen eskuetan dauden tresnak dira eta algoritmoekin jolasten dute. Ez gara gure proiektuen ikusgarritasunaren jabe, eta jende asko kanpoan uzten dituen komunikazio mota bat da.

Jaialdi politiko-kulturalak:

Horrelako ekimenek komunitateen identitatea indartzeko aukera eman diete hedabide komunitarioei. Izan ere, askotariko antolakuntza eta arte adierazpenak biltzen dituzte.

Jaialdi politiko-kulturaletan arte komunitarioa biltzen da, hau da, margolaritza, dantza, antzerkia, kantua eta komunitateetan egiten diren arte-adierazpen eta kultura-ekimen guztiak. Ia beti gai baten inguruan aritzen dira: bake kultura, indarkeria eza, salaketa komunitarioa, lurraldearen defentsa, komunikazio eskubidea, etab.

Jaialdiak data berezietan egiten dira, hala nola hedabidearen urteurrenean edo aldarrikatzeko beste data batean, eta maila eta adin desberdineko antolakuntza-adierazpenak sustatzeko tresna bilakatzen dira. Gainera, jaialdiak komunitateetako jende askok elkar ezagutzeko aukera izaten dira, eta, hala, haien arteko elkartasuna indartzen dute. Horiek antolatzeke, hedabidearen eta inguruko erakundeen arteko harremanak ezartzen dira, behar diren funtsak kudeatzeko.

06

Komunikazio kokatua

- Lurraldeek beren dinamikak dituzte. Lurraldeen defentsarako komunikazioa egiteko azterketa lana egin behar da tokian bertan. Izan ere, ez da beste lurralde batzuetako praktikak kopiatzea, aitzitik, okupatzen ditugun eremuetan eta xede ditugun pertsonekin hausnartu behar dugu.

Kontuan hartu behar dugu lurraldea ere aldatzen dela, mugitzen diren lurraldeak daude. Komunikazioak zubiak eta konexioak egiten laguntzen digu, eta mugitzen diren lurralde horiek kartografiatzen.

- Gure pribilegioez eta okupatzen ditugun eremuez konturatu. Gero, eremuak eman horiez gabetuak izan diren pertsonen, eta beti gure ezagutzak elikatzen dituzten pertsonak behar bezala aipatu.
- Ez homogeneizatu.

Lurraldeak defendatzeko borrokatzen diren pertsona guztiak ez dira "Giza Eskubideen Defendatzaileak", eta sistema patriarkalaren aurka borrokatzen diren guztiak ez dute "feminismo" hitzarekin bat egiten. Aniztasuna kontuan hartu behar dugu, eta, hortaz, elkarguneak identifikatu eta horietan zentratu behar gara.

- Komunikatzailearen eta iturriaren arteko harremana zaindu. Hurbilketa horizontala izan behar da eta beti pertsonen erritmoak eta kontatu nahi dutena errespetatuz. Ez jarri informazio-beharra gure solaskideen zaintzaren aurretik. Gainera, iturriari ematen zaizkien hierarkiekin hautsi behar dugu.
- Ez praktikatu informazio estraktibismoa. Zintzoak izan; besteek jakin behar dute ematen diguten informazioarekin eta transmititzen dizkiguten jakintzekin zer egingo dugun.

- Ahotsen legitimitatea: nor hitz egin behar du zeri buruz?

Tokia eman, bakoitzak berari gertatzen zaizkion gauzez hitz egin dezan.

Komunikatzaile bezala, zubia izan gaitezke kontatu nahi dutenaren eta hori jasoko duten pertsonen artean. Ikuspegi aniztasuna ere ondo dago, edukiak aberasten ditu.

Zer gertatzen da kazetaritzaren zehaztasunarekin?

Komunikazio eta kazetaritza komunitarioaren aurrean aurreiritzi bat egoten da; izan ere, zehaztasun falta leporatzen zaio. Ikuspegi korporatiboak kazetaritza mota hura baliogabetu nahi dituzten ikuspuntuak sortu ditu; izan ere, hark kazetaritza metodorik eta ikerketarik erabiltzen ez duela uste dute, eta ez-objektibotzat edo partzialtzat ikusten dute.

Kazetaritza komunitarioa egiteko, funtsezkoa da tokia eta testuingurua ezagutzea, hau da, kultura, kode sozialak, jendearen idiosinkrasia... Bertan izan, geratu eta pertsonekin hitz egin beharra dago; eta gero itzuli. Hona hemen zenbait praktika on:

- Kazetaritza-metodoa aplikatzen dela bermatzea; hau da, egitasuna, egiaztapena, iturri desberdinak bilatzea, besteak beste.
- Kazetaritza-lana mapa kontzeptualen eta botere mapen bitartez diseinatzea, iturriak eta informazioa egiaztatzea, sakontzea; baina, gainera, logika komunitarioak ezagutu behar ditugu.

07

Erronkak eta oztopoak

Proiektuen iraunkortasunaren arazoa:

- Kalitatezko komunikazioa egiteko behar ditugun baliabideen eta autonomiaren artean oreka egon behar dela kontuan hartzea.
- Zaintzatik lan egitea. Komunikazioaren sektorea oso prekarizatua dago, ezin dugu zaintzei buruz hitz egin horiek praktikatzeko ez dituzten eremuetatik.

Irrati komunitarioen iraunkortasun-praktika batzuk:

- Dirua biltzeko jarduerak egitea, tokiko salmenta txikien bitartez eta taldeen eta komunitateen borondatezko laguntzaz.
- Tokiko negozioei irratitarteak saltzea.
- Finantzamendu-proiektuak kudeatzea eta dohaintzak jasotzea, erakunde lagunen bitartez, irratien gaitasun politikoak eta teknikoak indartzeko.
- Erakunde aliatuen elkartasuna.

Autozaintza eta segurtasun praktika onak:

- Arrisku tokietan edo polizia-errepresioko egoeren aurrean informatzeko neurri protokoloak eta zaintza digitaleko protokoloak sortzea.
- Segurtasunari buruzko prestatuntza-prozesuak sustatzea.
- Informaterakoan gure burua babesteko beharrezkoa den ekipamendua erostea (piperbeltz espraiak, musukoak, polizien errepresioari aurre egiteko ekipamenduak, gas negar-eragilearen aurkako maskarak, balen aurkako kaskoak, etab.).
- Arreta eta bidelaguntza ematea, gaiak gertakariei buruz informatzen edo lurraldearen historia kontatzen duten pertsonen bizitzan eragiten duenean.

- Prozesuek eskualde bakoitzeko kosmogoniak eta mundua ulertzeko moduak errespetatzea.
- Gelditzea, gai batek min ematen duenean edo emozionalki hunkitzen duenean; horren berri ematen ari zen pertsonak ezin badu jarraitu, kolektiboki aztertu gaiaren lanketa nola bukatu.
- Segurtasun digitaleko protokoloak egitea, tokian bertan, informatze lanean, argitalpen bakoitzaren ostean, besteak beste.
- Terapia-zerbitzuak eskaintzea, ez soilik eraso edo urraketa baten ostean, baiziketa prebentziologika batekin, batez ere testuinguru latz edo arriskutsuetan, gaur egun bizi denaren modukoetan. Laguntza emozionala epe luzean mantendu.
- Komunitateekin eta komunitateko agintariekin aliantzak sustatzea, eta protokolo espezifikoak garatzea. Protokoloek gomendio espezifikoak emango dituzte, lurraldean sartzeko momentutik; esate baterako, eraso baten kasuan babesteko eta, beharrezkoa denean, lurraldetik irteteko.
- Komunikatzaileen artean gremioko babes eta zaintza sareak eta aliantzak garatzea, autozaintzako praktika kolektiboak egiteko.
- Atsedeen hartzeko eta gozatzeko denborak eta eremuak.
- “Giza sareak” bizitzak salbatzen dituen estrategia eta praktika dira, eta babes kolektiboko ikuspegiaren parte dira.
- Komunikazioen segurtasun digitala.
- Lurraldea ezagutzea, komunitateetako edo erakundeetako erreferenteak identifikatzea, eta informatzen duen pertsonari orientabidea ematea, jakin dezan noiz urrundu behar den bere segurtasun fisikoa gordetzeko.

Artikulazioak eta aliantzak:

- Gremioko aliantzak sustatzea, alderdi bakoitzari dagokion horren inguruan gardentasuna eta argitasuna erakutsiz. Izan ere, horrek estaldura hobetzeko ahalmena du, eta oso baliogarria izan daiteke arrisku-egoera edo kriminalizazio-prozesu baten aurrean.
 - Tokiko erakundeekin, agintari komunalekin eta buruzagi komunitarioekin harreman erreza izatea, kazetari-ikuspegia galdu gabe.
 - Erakunde edo lidergo komunitarioak ez erromantizatzea. Konturen bat ezagutzera eman behar bada, ez da komeni hori ezkutatzea.
 - Tokiko erakundeekiko eta agintari komunalekiko aliantza taktikoak babes elementua izan daiteke kazetariak beren jardunean mehatxu edo urraketa baten pairatzen badute.
 - Guztiontzat seguruak diren eremuak sortzea.
-

PARTE-HARTZAILEAK

Ikerketetan parte hartu duten kolektiboak, hedabideak eta erakundeak:

Euskal Herria eta Espainiako Estatua

Pikara Magazine

www.pikaramagazine.com

Pikara 2010ean Bilbon sortutako aldizkaria da. Mota guztietako gaiak lantzen ditu ikuspegi feminista eta intersektionala erabiliz. Aldizkariaren edukiak kolaboratzaile sare handi batek sortzen ditu, eta ikuspegi desberdinak eskaintzen ditu.

Andra

www.andra.eus

‘Andra, Emakumeon Ahotsak’ Espainiako Estatuan emakumeek idatzi eta zuzendutako lehen aldizkaria izan zen. 2000tik 2004ra bitartean argitaratu zen. Euskal Herrian editatzen zen eta, hilerio, paperean saltzen zen kioskoetan.

Hala Bedi irrati

www.halabedi.eus

Hala Bedi euskal herri mugimenduen 1983an Gasteizen sortutako irrati librea da

Bizilur

<https://bizilur.eus/es/>

Nazioarteko nekazari mugimenduen errentzako tresna gisa sortutako GKE bat da.

Afrocolectiva

www.afrocolectiva.wordpress.com

Afrocolectiva “zapalkuntza-sistema guztien aurkako borrokan dihardun komunikabide eta dekonstrukzio bide afrofeminista, antirrazista eta panafrikanista” da.

LolaMora Producciones

<https://www.lolamora.net/es/>

2005etik 2006ra bitartean sortutako kolektiboa da. Genero ikuspegia eta giza eskubideen ikuspegia erabiltzen ditu eta kazetariekin eta tokiko hedabideekin lan egiten du; beti tokiko, nazio-mailako eta nazioarteko eremuen arteko zubi lana eginez.

Periferies

<https://periferies.org/es/>

Valentziako GKE bat da. Joan den mendearen amaierako sarraski gerrak pairatu zituzten komunitate indigenak eta nekazariak beren eskubideen defentsan laguntzea du helburu.

Emigrad@s Sin Fronteras

<http://emigradossinfronteras.org/wp/>

2008an sortutako emigranteen elkarte. Nazioarteko Lankidetzaren eta inmigrazioaren esparruetan lan

egiten du, pertsona migratuen eta haien jatorrizko lekuen artean loturak

zeko, haien parte-hartze politiko eta soziala errazteko helburuz.

El Salvador eta Honduras

Asociación de Radiodifusión Participativa de El Salvador (ARPAS)

<https://arpas.org.sv/>

Komunikabide alternatibo eta komunitarioen koordinatzailea da, nazioko eta eskualdeko erreferentea. Komunikazioaren demokratizazioa sustatzen du, eta Bizitze Ona eraikitza bideratutako eraldaketa-prozesuak laguntzen ditu.

Radio Sensunat

<https://radiosensunat1.blogspot.com/p/quienes-somos.html>

2010eko uztailaren 26an sortutako irrati komunitarioa da. El Salvadorreko Sonsonate departamenduan sortu zuten, hedabide alternatiboa izateko asmoz. Hedabide inklusiboa da, eta gizarte, kultura, ingurumen eta hezkuntza konpromisoa eta ardura ditu.

Radio Victoria

<http://www.radiovictoriaes.org/>

Irrati hau ezinbesteko baliabidea da Cabañas departamenduko komunitateentzat. Partaidetza sustatzen du eta komunitateak beren giza garapenerako prozesuan laguntzen ditu. Eremu horretan sartzeko, elkar agurtzeko, abisuak eta iragarkiak

partekatzeko, beren arazoak azaltzeko, konponbideak bilatzeko eta eragiten dieten politika publikoak zalantzan jartzeko aukera ematen dio jendeari.

Radio Guazapa

<https://www.radioguazapa.org/>

Proiektu komunitario hau sortzeko ahaleginak 1997an hasi ziren, eta, 2001eko maiatzaren 28an, azkenik, irrati hau airean izan zen, FMko 92.1ean. Guazapa herriko Oscar Perezen ideia izan zen, eta tokiko garapenarekiko konpromisoa erakutsi du.

Radio de Todas

<https://colectivafeminista.org.sv/la-radio-de-todas/>

Irrati feminista da, eta komunikazio ez-sexista, ekitatiboa eta genero-ikuspegia duena bultzatu nahi du plataforma digitalen bidez.

Bere lan ildoak honako hauek dira: pertsonen proposatutako programek genero-ikuspegia izan behar dute, sensibilizatutako pertsonak izan behar dira eta ez dute diskriminazioa sustatu behar. Kideen % 100 emakume anitzak dira beren genero-identitateari eta sexu-orientazioari dagokienez.

Radios Comunitarias de la Coordinación General del Consejo Cívico de Organizaciones Populares e Indígenas de Honduras (COPINH)

<https://copinh.org/>

COPINHen irrati komunitarioen helburuen artean honako hauek nabarmentzen dira: Lenka Herriaren kultura, erresistentzia eta historia sustatzea; nazio-mailako eta

nazioarteko politika aztertzea, zer gertatzen da munduan eta zergatik; dominazio-sistemei eta herri indigenen bizi-proiektuei buruz hausnartzea; erakundeak komunitate mailan egiten duen lana ezagutzera ematea; eginkizun garrantzitsua betetzea prestakuntzari, hezkuntzari, informazioari eta komunikazio herritarretik eragiteko egiten den lanari dagokienez.

Guatemala y Chiapas

Jun Na'oj

<https://www.fger.org/secciones/jun-naoj/>

Komunikatzaile Indigenen Sarea da, eta irrati eta sare sozialen bitartez transmititzen du. Irrati eskolen Guatemalako federazioaren (FGER) parte da. Jun Na'oj sareak irrati kudeatzeko ezagutza teknikoak ikasteko prestakuntza-eremuak eskaintzen ditu.

Festivales Solidarios

<https://festivalessolidarios.medium.com/>

Hainbat artistak, komunikatzailek eta kazetarik osatutako hedabide antirakistak. Herri zuzendutako bozgorailu digital gisa balio du. Erauzketa-proiektuen aurrean ondasun naturalak babesten dituzten defendatzaileen kriminalizazioari eta egoerari buruz informatzea du helburu..

Proyecto Aliadas

<https://www.facebook.com/Aliadasgt/>

Elkarriketarako, komunikaziorako eta prestakuntzarako eremuak sortzen dituzten emakume kazetari eta komunikatzaileen kolektiboa. Aliadas proiektua Quetzaltenango eskualdeko emakume kazetari eta komunikatzaileen lana bistaratzeko helbuarekin sortu zen.

COMPPA

<https://comppa.org/>


COMPPA (Comunicadorxs Populares Por la Autonomía) 2003. urtean sortu zen. Bere helburua erakunde indigenak eta herritarrak laguntzea da, beren komunikazio eskubideak funtsezko giza eskubide bezala erabiltzeko eta eraikitzeko prestakuntza, trebakuntza eta laguntza teknikoa emanez. Hain zuen, herri indigena, afrikar jatorriko eta nekazarien adierazpen askatasuna, informazio eskubidea eta komunikazio eskubideak lantzen dituzte.

* Ikerketetan sei herrialde horietako (El Salvador, Honduras, Guatemala, Chiapas, Euskal Herria eta Espainiako Estatua) beste zenbait lankidek ere parte hartu dute kazetaritza eta komunikazioa freelance gisa lantzen dituztenak. Gainera, beste hedabide eta kolektiboetako zenbait kidek ere parte hartu dute, baina ez dira

Gida hau lagun askoren lan kolektiboari eta parte-hartzeari esker izan da posible.

Zuoi guztioi, ESKERRIK ASKO.

Aurrera!



Lumatik
HERRIAK

E GARAPENERAKO
LANKIDETZAREN
EUSKAL AGENTZIA
AGENCIA VASCA DE
COOPERACIÓN PARA
EL DESARROLLO